

INGURUMENA. ANTIGUATIK MUNDURA

Irakaslea

MARKO SIERRA. Nekazaritza ingenerua eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea. Hainbat ikastetxetan zientzietako izandako irakasle honek, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta batez ere Donostiako udalarentzat zein Donostiako hainbat auzo elkarteentzat, egiten du lan. Gehienetan, ingurumenaren arloan, Donostiako Biodibertsitatea izeneko lanean parte hartu zuen eta uda honetan Ondarretako harrien arazoaren lan teknikoa egin du.

Jarduera

Ingurumenari buruzko ikastaroa Antigua auzoko ezaugarriak erabiliz.

Deskribapena

Ingurumenaren kontzeptutik hasita, eta hezkuntza ambientalaren oinarriko kontzeptuekin jarraituta, gure etxeetako ingurumena, energia, ura eta hondakinak aztertuko ditugu.

Ikasle bakoitzaren etxebizitza kokatuta, etxetik atera eta entzuten eta somatzen ditugun zaratak eta kutsadura atmosferikoa edota lur kutsatuen presentzia landuko ditugu. Kalera atera... eta poligonoak, errepideak, azpiegiturak, kaleetako zuhaitzen sailkapena, eta hirietako planifikazio berdearen garrantzia ezagutuko ditugu, gure zonalderako aurreikusten den Plan Orokorrari begirada ematen diogun bitartean.

Auzotik atera, eta gure inguruko geologia, geomorfologia, erliebea, klima, eta ekosistemak begiratuta, Euskal Herri osora salto egingo dugu lurraldea antolatzeke ditugun tresnak ikasten ditugun bitartean.

Ondoren, arlo hauetako elementu hauek, mundu osoan dauden eta zerikusia eta antzekotasuna dituzten beste errealitateekin, konparaketa egingo dugu.

Munduan dauden eta ingurumenean eraginak dituzten gizakiaren aktibitatea, artifizializazio prozesuak, baso ustiapena, abelzaintza, harrobiak eta mehategiak, azpiegiturak, eta aisialdiei erreparatuko diegu.

Helburuak

- Ikasleek, ingurumenaren inguruko oinarriko hezkuntza ambientalara jasotzea.
- Gertuko adibideak erabiliz ingurumenarekin lotutako gaiak aztertu eta sakondu.
- Ikasiz gozatu.
- Ikasleen parte hartzea bultzatu.

Nori zuzendua

Ingurumenaren inguruan interesa duten donostiar helduentzat.

Metodologia:

Klaseak teoriko-praktikoak izango dira eta gelan zein kalean emango ditugu txango desberdinak eginez.

Egunak - Ordutegia

Urriak 18 – Otsailak 28

Ostirala,. 19:15-20:45

Hizkuntza

Euskera